

URKO MANTEROLA • SAGARDO EGUNAREN ELKARTEKO KIDEA

## «Sagardoa mundu guztian dago»

Urko Manterolak, Sagardo Egunearen Lagunak Elkarte kidea, adierazi du Usurbilen Sagardo Eguna antolatu zutela botilako sagardoa ezagutarazteko eta haren kontsumoari bultzada emateko.

48 sagardo erakusmahai izango dira Usurbilgo Sagardo Egunean: Eusko Labeleko 12 sagardogile, Gipuzkoako sagardogileen elkarte 22 sagardotegi, elkartetik kanpoko beste 2 sagardotegi, herriko baserriko 10 sagardotegi eta Alemaniako sagardoarekin beste 2 postu.

**1982an hasi zineten Sagardo Eguna antolatzeko, dagoeneko sustatzen duzue, ezta?**

1982an egin zen lehen aldiz Sagardo Eguna Usurbilen, eta hementik beste herritara zabaldu zen.

**Zergatik lortu du horrelako ospea?**

Garai haietan, sagardotegien egoera nahiko txarra zen, eta asko ixten hasi ziren. Ez zen egungo egoera. Hemen inguruan ere bat

baino gehiago ixtekotan zegoen. Hori ikusita, eta botilako sagardotari bultzada bat eman nahian, lagun batzuk elkartu eta horrela dastatze batzuk antolatu zituzten hasiera hartan. Lehenengo urte haietan, lokal itxi batean izaten zen; Juan Mari Arzak etortzen zen sostengua ematera.

**Zein helburu du Usurbilgo Sagardo Eguna?**

Egungo botilako sagardoa ezagutarazteko helburua du. Aurten, guztira, 48 erakusmahai egotea espero dugu: Eusko Labeleko 12 sagardogile izango dira, Gipuzkoako sagardogileen elkarte 22 sagardotegi, elkartetik kanpoko beste 2 sagardotegi, herriko baserriekin 10 postu eta Alemaniako sagardoarekin beste 2 postu.



AITOR MANTEROLA

Askatasuna plazan labeleko sagardoak izango dira. Dema plazan, Gipuzkoako Sagardogile elkarteak, eta, frontoian, herri-

ko baserriarren sagardoa, Gipuzkoako Sagardogile Elkarte besteren bat eta Alemaniatik etorritako sagardoak batek bere

«Jende asko izaten da Usurbilgo Sagardo Egunean, baina uste dut azkenaldian jaitsi dela»

eskualdeko sagardo batzuk dastatzeko ekarritakoak.

**Nola ikusten duzue sagardogileen artean dagoen 1ka-mika?**

Duela urte batzuk arazo gehiago izan ziren orain baino, bakoitzak bere baldintzak jartzen zituelako, eta batzuek kobratu nahi zutelako. Aurten Kalitate fundazioarekin harremanetan jarri gara, eta Eusko Label markako sagardoak izango ditugu, baita Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte ordezkariek ere.

**Nolakoa izaten da jendearen erantzuna?**

Jende asko izaten da, baina esango nuke azkenaldian jaitsi egin dela. Ez dakit krisiarengatik den edo, baina jende gutxiago biltzen da. Gu, behizat, saiatzeko gara guzuzak ahalik eta ondoen egiten: sagardoa tenperatura egokian eta ondo zerbitzatzen... Uste dut jendeak ondo hartzen duela.

**Aurten ere atzerriko sagardoa izango duzue. Ohiko edaria al da atzerrian sagardoa?**

Sagardoa mundu guztian dago. 25. urteurrena zela eta, kanpoko sagardo ugari ekarri genituen: Kanadan sagardoa egiten dute, Txinan ere sagardoa dute, Marokon... leku guztietan dago. Aurten etorriko den alemaniarrekin harremana egin zuen herriko batek duela bi urte, eta aurten 12 sagardo mota dira ekarztekoak.

## GORENAK SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



ALORRENA • ALTZUETA • BARKAIZTEGI • BEGIRISTAIN • EGI-LUZE • GARTZIATEGI • GAZTAÑAGA • GURUTZETA • ISASTEGI • OLAIZOLA • SARASOLA • ZAPIAIN • ZELAYA



GORENAK

GUZTIOK NORABIDE  
BEREAN EGITEN  
DUGU ARRAUN.

SEKULAKO  
EMAITZAK LORTUZ,  
LEHEN-LEHENAK  
IZATEKO.

HORREGATIK DARAMAGU  
SAGARDOEN  
EUSKAL SELEKZIOAREN  
TXAPEL BELTZA.

